

Soinu artea

Bellissimoa

2006 urtean Maialen Lujanbiok, Judith Monterok eta Xabier Erkiziak Ornitorrinkus sortu zutenean, animalia-proiektu koxkor berezi baten aurrean aurkitu ziren. *Freak* antzeko bat. Errima oinak, enborra klasikoa eta Eustakio tronpa itxurazko soina zuena. Hiru gurasoek amodioz hezi zuten etorri berria, eder eta bixkor. *Baldin eta hala, orduan tira.*

ALEX MENDIZABAL

“Ornitorrinkus musika garaikideak, elektronikak eta bertsoak elkar hartuta osaturiko hotsen eta ahotsen emanaldia da, *performance*-aren, kontzertuaren eta *happening*-aren artean kokatzen dena” (www.ornitorrinkus.org webgunetik)

Jaio bezain pronto, egitasmo *freak* hau emankorra izan zen. Jendaurreko saioak egiten hasi zen, non ahotsarekin, saxoekin, soinuak, argiak eta jendeari emandako partiturekin jolasten zuen, Iñigo Telletxea eta Ibai Gogorzarekin batera. Saio huez gain grabazioak, idatzitako testuak eta pieza ugari egiten eta biltzen hasi ziren. (Ikus *Zehar* Aldizkaria 65. alea eta *Gatza-k* argitaratutako *Lancemos Irresponsables, Los Dados* poesia CDa, TITA/18).

Laugarren urtea beteta, oraingoan Ornitorrinkus egitasmoak aurkezten duena, “lehen lan luzea da”. “Proiektuaren hastapenetatik osatu eta landutako hainbat ariketa, musika edo kanta (norberaren gustuen arabera) biltzen ditu”.

CDak dauzkan grabatutako 12 pieza hauetan, dinamika akustiko oso bizia dago. *Mix* soinu nahasketa fina eta elegantea, eta aldi berean gordina eta ausarta. Maialenen ahotsa urruti eta soinu paisaia batean murgilduta entzungo dugu pieza batean, exotiko eta erakargarri. Erabat present eta aurre-aurrean beste batean. Ala saxoekin testura bat osatuz. Judith Monterok ornitorrinkoari gogoz puztu egiten dio. Saxo soinu aberatsez hornitu gorputza. Fita edo mihiarekin egindako soinu polifonikoak batzutan, atake bortitzeak bestetan. Erregistro ezberdineko saxoe-

kin sonoritate sendoa, melisma mikrotonalak, testurak eta dinamika konplexuak tartekatuz. Lujanbiok sailka ezin animaliarri ematen dio ahotsa (italianoz animalien ahotsei *verso* esaten zaie), errima-oinak zabaldu eta kantuka masajeatzen dizkio. Ornitorrinkoa bera bilakatzen ari denaren ideia bildu eta *off bizioa* eman. Hitza solastuz eta doinutuz.

Xabier Erkiziak, Eustakioren tronpa, tranpa bezala ulertzen du, jolasaren gogoia pizten dio proiektuari, zarata gozoz eta bidegurutze akustikoz josiz eta jantziz.

Pausa izango da hirukotearen kola. Nabarmena da Judith, Xabi eta Maialenek duten pausarako jarrera aktiboa. Haien arteko

konbinazioak lortzeko behar dituzten isiltasunak. Musikaren barruraino eramango duten diskrezio dotorea. Norberaren izaera mantendu ordez, beste bien ekarpenekin kolokan ipini. Honela saxoaren phonema bat elektronikak jaso eta biderkatu egingo du. Edota hitzak, zaraten eta isil-tarteen presentzia argituko du. Eta denon artean espazio akustikoa sintetizatuko dute.

Grabazioak ez dira erraz utziko sailkatzen eta piezaz pieza zure ustea ezustera bideratuko dute, musikaren zirrara.

CDaz gain, liburu poster tolestua. Joseba Sarrionandia, Ixiar Rozas, Xabier Erkizia, Jakoba Errekondo eta Maialen Lujanbioren testuak zenbait piezatan oinarritzen dira. Eta horiek guztiak Jose Belmonte marrazkilaria banan bana ilustratuak.

Objektu disko liburua, Ornitorrinkusen webgunean, Lanku bertso zerbitzuan eta Arto-artian “musika txikien katalogoan” eskuratu ahal izango duzue.

Disko-liburu-poster maitagarria, *bellissimoa*. ■

